

BARNE-ARAUTEGIA (Taldekako Liga Nazionala)

1.- ANTOLAKUNTZA: Antolakuntza Euskadiko Urpeko Ihardueren Federakuntza (hemendik aurrera E.H.U.I.F.), Nafarroako Urpeko Ihardueren Federakuntza (hemendik aurrera F.N.D.A.S.) eta Aragoako Urpeko Iharduere Federatuntzaren (hemendik aurrera F.A.R.A.S.) artean partekatuko da, lehiaketaren antolakuntzaren arduradunak izango direlarik. Honela, Federazioetako Epaille Batzordeek txapelketaren kontrolaren ardura izango duen epaimaia izendatuko dute.


2.- JARDUNALDIAK, TOKIAK ETA FROGAK: <http://www.ehuif-fvas.org/aletas/> web orrialdean eskuragarri egongo den Liga honetarako egutegi berezia sosrtuko da urtero. Bertan, jardunaldi bakoitzean lehiatuko diren frogak zehaztuko dira.

3.- PARTAIDETZA:

- ✓ Federazioko lizentzia indarrean daukaten igerilariak.
- ✓ Igerilari bakoitzak nahi banakako **bi** frogetan eta errelebo **batean** parte hartu dezake.
- ✓ Takdeek froga indibidualetan parte hartzaile kopurua zehaztu gabe daukate.
- ✓ Talde bakoitzak nahi adina emakumezko zein gizonezko errelebo talde aurkeztu ditzake.

4.- MAILAK: Sexu bakoitzarentzat maila bakarra egongo da: **ABSOLUTUA**.

Jardunaldi hauetan, partaidetza, **infantil** (2000. urtean jaiotakoak edo lehenagokoak) edo helduagoak diren igerilarietara mugatua egongo da, antolatzen duen erkidegoko **infantil-aurreko (2001-2002 urtetakoak)** igerilariak ezik. Hauek partu ahal izango dute jardunaldian.



Infantilek, maila horretako Espainiako Txapelketan parte hartu dezaketen froga berdinetan bakarrik igeri egin ahalko dute; beraz **ez dituzte** ez urazaleko 1500 eta 800 metroak **ez eta** apneako 50 metroak lehiatuko. 50m apnea dagoenean, 25m apneako froga egongo da beraientzat.

5.- IZEN EMATEA: <http://www.ehuif-fvas.org/aletas/> web orrialdean, formularioen atalean eskuragarri egongo da Izen Emate orria.

Orrialdea, dagokion moduan bete beharko da. Igerilariren batek frogaren batean denborarik izango ez balu, denborari dagokion atala zurian utziko da.

Inskripzioak, jardunaldia antolatzen duen federazioak, frogak lehiatuko diren asteko asteazkeneko 20:00etarako izan beharko ditu. naehuif@gmail.com posta kutxa elektronikora eta antolatzen duen taldeari bidali beharko zaizkio.


Erreleboetako orriak, jardunaldiko idazkaritza mahaian jasoko dira eta lehiaketa amaitu baino 5 serie lehenago egoki beteta eman beharko dira.

6.- SERIEEN OSAKETA: 50 edo 25 metrotako igerilekuan lorturiko denboren araberako Erlojuaren Kontrako Serieak izango dira.

7.- AGIRIEN BANAKETA (SERIEAK): Agirien banaketak beroketaren hasieran egingo da. Jardunaldia ospatu baino aurreko ostiralean posta elektronikoz kopia bat bidaltzen eta <http://www.ehuif-fvas.org/aletas/> web orrialdean argitaratzen saiatuko dira antolatzaileak.

8.- BAJAK: Igerilarien bajak beroketaren hasieran jakinaraziko dira.

9.- Beroketa: 6 kaleetako igerilekuetan, talde bakoitzak bana izango du berotzeko eta 1. kalea irteera eta 25 metrorarteko serieak egiteko erabiliko da.



5 kaleetako igerilekuetan, talde bakoitzak kale bana izango du berotzeko.

10 kaleetako igerilekuan, talde bakoitzak bi kale izango ditu berotzeko eta ez da irteeretarako kalerik izango.

10.- EMAITZAK ETA TXAPELKETARI ERREKLAMAZIOAK: Emaitzak egin ondoren, talde bakoitzari korreo elektronikoz helaraziko zaizkio. Hiru egunetako epea egongo da dagokion zuzenketak eskatzeko.

Epe hau pasa hondoren, aldaketarik egongo balitz, errebisio berria egiteko 24 ordutako epea egongo da. Erreklamazio gehiago azaltzen ez badira, FEDASera bidaliko dira Estatuko Rankingean barneratzeko eta <http://www.ehuif-fvas.org/aletas/> web orrialdeko emaitzen atalean argitaratuko dira.

11.- AURREIKUSI GABEKO ARAUAK: Arautegi honetan jasotzen ez den beste guztirako C.M.A.S.eko Hegats Igeriketako Nazioarteko Arautegiaren 2010/01 bertsioak dionari so egingo zaio.

Donostia, Iruña eta Zaragozan 2011KO azaroaren 1ean

Fdo. Gorka Merino
Euskadiko H.I. Batzordeko
Lehendakaria

Fdo. Pello Eguren
Nafarroako H.I. Batzordeko
Lehendakaria

Fdo. Fernando Terradas
Aragoako H.I. Batzordeko
Lehendakaria